



DANI BLANCO

Mikel Irizar

TOPAGUNEKO PRESIDENTEA ♦

Euskaltzaleen topaguneak

MARTXOAN etorriko dira bi urte Topagunearen presidente izatea onartu nuenetik eta, hartutako konpromisoa beteta, kargua utzi egingo dut Batzar Nagusiak aukeratuko duen ordezkorearen eskuetan. Paraleloan, utziko dut baita ere kargu honi lotuta hartu nuen bestea, alegia, TOKIKOMen presidentearena.

Kargua hartzean esan nuen urte luzez ibili izan naizela euskalgintzaren periferian, hainbat jarrerarekin ez oso ados. Kargua uztean esango dut orain bat egiten dudala erabat Topagunea bultzatzen ari den euskaltzaleen mugimendu eraldatuarekin. Zer ikusi dudan tartean? Ba ondokoak, behintzat.

Ikusi dut lantalde bat oso konprometitua, bai federazioan eta bai herrietan. Hain konprometitua, gai izan dela azken hiruzpalau urteetan eraldaketa prozesu sakonean sartzeko eta horrek eskatzen zuen gainkarga hartzeko, krisiaren gordinenari sendo erantzuten zion bitartean.

Ikusi dut euskaltzale asko biziberritzen, urteen poderioz pilotutako ajeez jabetu eta berrikuntzarako jarrera hartzen, eta erosotasun esparruei uko egiten euskararen normalizazioak zerbait gehiago, zerbait berria eskatzen duela antzemanda.

Ikusi dut hainbat aditu izendun lankidetzan lotzen eta taldean bateratzen, jakintza partekatzen eta ikerketa bideratzen, hiztun komunitatearen ahots propioa

lantzeko eta euskara jendartearen erdigunean kokatzeko helburuarekin.

Eta ikusi dut dinamika horren eragin ona herri erakunde eta euskalgintzako beste hainbat eragilerengan, eta nola zubiak ari diren eraikitzen hizkuntza normalizazioaren lehen baldintza indar metaketan jartzen dugunon artean.

Ikusi ditut bestelakoak ere, noski, iraganen periferian egotera bultzatu izan nautenak: batzuen ziliborkeria bakarzalea, besteen beldurra mugitzeko, hangoen eta hemengoen joera sektarioak. Baina faktore ezkor hauek ez dute alternatiba bat osatzen, gainditu beharreko erresistentziak dira. Eta ikusi dut bakarren bat gainditzen ere.

Beraz, martxoan kargua utziko dut baina ez mugimendua. Zinez uste baitut euskarak topaguneak behar dituela, zoru komunak eta esparru partekatutak, edozein euskaltzale eroso sentiaraziko

duzenak. Eta hain zuzen hor metatuko den –metatzen ari den– aldekotasun soziala faktore erabakigarria izango dela euskararen normalizazioan nabari diren sabai batzuk apurtzeko eta jauzi garrantzitsuak egiten jarraitzeko.

Euskaltzaleen topagune horiek behar direlako segituko dut bultzatzen Topagunea. ■



Martxoan kargua utziko dut baina ez mugimendua. Zinez uste baitut euskarak topaguneak behar dituela, zoru komunak eta esparru partekatutak

DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Mila aldiz

DIOTENEZ, gezur bat behin eta berriz errepikatzearen ondorioz egia bilakatzen da maiz. Horri buruz ongi dakigu hemen. Azken aldian ordea, pentsatzen nabil zer pasatzen ote den egia behin eta berriz errepikatzen dugunean.

Herri honek egia ugari ditu bere baitan, pertseberantziak errepikatutak, urteetan zabalduak. Urtarrilaren 11n entzun genituen egia horietako batzuk, asko errepikatuta ere, zentzu bera mantentzen dutenak eta indarririk galtzen ez dutenak. Beste egia batzuk ordea ez ziren hain zaharrak, edo ez batzuok askotan errepikatutakoak, baina egia horiek denak batu

ziren, ikuspuntu eta prisma ezberdineko egia osoago bat-edo osatzeko.

Hurrengo egunetan narrazio ezberdin ugari irakurri eta entzun dugu han-hemen, horiek ere nahikoa errepikakorak, eta denak egia direlakoan kontatutak.

Baina tira, momentuak historikoak direla pentsatzen dugunean, kanpoko gezur errepikakorren aurrean, gurea egia-go dela sinetsi behar dugu; denon artean. Izan ere, orain eraikitako egia kolektibo eta sendo horiek baitira, hamarkadak pasata ere, errepikatzen jarraitzen ditugunak. ■

